

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Miguel Servet fundazioak webgune bat abian jarri du Nafarroako osasun publikoko ikerketa zabaltzeko

*Enpresa, erakunde eta partikularrei eskaintzen dizkien zerbitzuei buruzko informazioa ere ematen duen tresna hori aurkeztu du Vera kontseilariak*

Lunes, 26 de noviembre de 2012

Miguel Servet fundazioak gaurtik aurrera [webgune bat](http://www.navarrabiome.es) du Interneten ([www.navarrabiome.es](http://www.navarrabiome.es)), eta hura, alde batetik, Nafarroako osasun sistema publikoak egiten den ikerketari buruzkoa da, eta bestetik, enpresa, erakunde eta partikularrei eskaintzen dizkien zerbitzuei buruzkoa (biobankua, komunikazioa eta diseinua, genomika eta ikerketa klinikoaren kudeaketa).



Navarrabiomed-eko Ikerketa Biomedikuko Zentroa.

‘On line’ tresnak ere baditu ikertzaileen arteko elkarlana errazteko eta enpleguari buruzko informazio praktikoa, lagin biologikoen dohaintzak edo proba klinikoetako elkarlanerako, Osasuneko kontseilari Marta Verak eta Fundazioaren zuzendari José María Roig-ek prentsaurrekoan azaldu dutenez.

Webgunearen bitartez, fundazioa gizarte zibilari eta komunitate zientifikoari ezagutzera eman nahi zaio, eskaintzen dituen zerbitzuak erakutsi eta jatorri pribatuko baliabide ekonomikoak eskuratzeko lana erraztuz ikerketari lagunduz. Alderdi instituzional horretan, Departamentuko ikerketa-jarduera zabaltzeko komunikabide garrantzitsuenetako bat bihurtu nahi du.

Gainera, webguneak 223 ikertzaileei dagokien informazioa sistematizatzen du, haiek guztiak Departamentuko enplegatu publikoak, 5 ikerketa-eremutan eta antolatutako 23 taldetan egituratzen direnak. 86 ikerketa-lerrotan lan egiten dute, eta haietatik 38 Europako, Estatuko edo eskualdetako erakundeek finantzatzen dituzte. Gainera, ospitaleko laguntza-sektorean sendagaien aplikagarritasuna eta eraginkortasuna baloratzeko diren 120 proba kliniko aktibatuta daude.

### Elkarlanerako tresnak

Bestalde, eta fundazioaren helburu nagusiarekin bat etorriz, ikerketa sustatzearekin, webguneak sarbide mugatuko eremu bat du barneko

ikertzaileentzat (223 profesional), ikerketa erraztuko duten 'on line' laguntza-tresnekin (taldearen barnean eta beste talde batzuekin). "Oso garrantzitsua da, batez ere, Lehen Mailako Arretaren antzeko arloetan, non profesionalak Nafarroa guztian banatuta dauden eta, beraz, zuzeneko harreman zaila duten", azaldu du Roig-ek.

Webgunea parte hartzeko espazio bat ere izango da eta, hala, gizarte-sareen indarrak baliatuko da, (Twitter, LinkedIn, Facebook, Youtube...) ikerketa sustatzeko eta ikerketako jakin-min pertsonala baliatzeko.

Lagin biologikoen dohaintzak eskuratzea eta izan daitekeen proba klinikoen parte-hartzea bideratuko ditu ere. Fundazioak azterketa zientifikoetarako diren lagin biologikoen biobanku publiko bat du, ehun neurologikoetan garrantzi handikoa. Biobanku hori desoreka neurologikoekin edo desorekarik gabe hildako pertsonen burmuinen dohaintzekin elikatzen da. Une hauetan, endekapenezko gaitzak eta osasuntsu dauden pertsonen 350 burmuin ditu, hau da, Espainian dauden era honetako biobanku garrantzitsuenetakoa da.

Azkenik, webguneak egun beste zentro batzuetan ikertzen ari diren ikertzaileek bereganatzen lagun dezake. Alde horretatik, hutsuneak edo lankidetzarako aukerak dauden adieraziko du eta Nafarroako ikerketa publikoaren sektoreko eta proposamen horien "sendotasuna, ospea eta garrantzia" transmitituko du, Roig-ek esan duenez.

Kontseilaria pozik agertu da "Nafarroan ikerketak duen garapen garrantzitsuagatik, nahiz eta une ekonomiko txarrak bizi eta beste faktore batzuk ere egon". Gogora ekarri du Nafarroako Osasun Arreta Publikoaren Eredua garatzeko estrategia unitate eta zerbitzu klinikoen barnean sustatzen dela ezagutza biomedikua errealitate klinikora eramaten laguntzeko osasun-sistemaren eraginkortasuna eta emaitzak hobetzeko baliabide gisa. "Ikerketa ez da isolatutako zerbait bezala ulertu behar, laguntza-jarduera alde batera utzita. Egintza mediku bakoitzean presente egon behar du" azaldu du. Profesionalen lana eskertu du, maiz ordu libreak ikerketari eskaintzen dizkietenak.

### **Navarrabiomed**

Miguel Servet fundazioa Osasun Departamentuaren esku dagoen izaera publikoko erakundea da eta Nafarroako osasun-ikerketa sustatzeko dago, sektore publikoan batez ere, herritarren osasunean ondorio ona bilatzeko xedea duena (ikerketa aplikatuak edo nazioartekoak). Berriki eta kudeaketa integralaren alde egiteko eta eraginkortasunaren mesedetan, Nafarroako ikerketa biomedikuko zentroa, orain arte CIB izenarekin ezagutzen zena, orain Navarrabiomed izena hartu du beste ikerketa biomedikuko zentroetatik bereizteko.

Fundazioa, beraz, osasun-profesionalen zerbitzura dagoen plataforma zientifikoa da, eta osasun sektore publikotik beren denboraren zati bat ikerketari eskaintzen dioten ikertzaile guztiei laguntza ematen die. Alde batetik, azpiegitura teknologiko oso sofistikatuak du (genomikoa, proteomikoa.. Navarrabiomed-en) eta, bestetik, ikerkuntzari laguntzeko unitateak kudeaketan, metodologietan, diseinuetan eta administrazio-lanetan. Sektore pribatuarentzat zabalik dago (enpresa bioteknologikoak): ekipamendu zientifiko eta teknologikoa, azterketak, erabaki analitikoak.

Fundazioaren nahia, Nafarroako osasun sektore publikoko profesionalak ikerketan interesa izan dezatela da, 2.000 mediku eta 3.700 erizain tituladun dituen. José María Roig-ek osasun-profesionalen laguntza eskatu du webgunea hobetzeko.